

2007KO URRIAREN 24KO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

DEIALDIA: LEHENA
HASIERA ORDUA: ILUNTZEKO 6:05AK,
AMAIERA ORDUA: ILUNTZEKO 9.30RAK

BERTARATUAK: Jesús Maria Fullaondo, Alkatea, Maria Jesús Azkúe, Pedro Arrizabalga, Leixuri Arrizabalaga, Jose Maria Markaida, Maite Elordui, Deitze Erkoreka eta Iñaki Aginaga.

Udaletxeko Batzar aretoan, osoko bilkura bildu da, ohiko osoko bilkuran, aipatutako zinegotziak bertaratuz. Bilkura zabaldua, Idazkariaren aldetik bilkura ahal izateko behar den gutxieneko kopurua izatea ikusi ondoren, gai zerrendan agertutako gaiei buruz hitz egin dute:

1. Arteko bilkuraren aktaren onarpena.

Deialdiaz batera emandako arteko osoko bilkuraren aktaren kopia kontuan hartuta, inork ez dauka oharrik, beraz onartzat eman da.

2. Alkate dekretuak jakinaraztea.

Jose Maria Markaidak 2007/88 dekretuaz (Venero y Gorrochategui S.L. enpresari Udalaren prentsa kabinet zerbitzuari buruzkoa) galdetu du. Ez dago ados honekin, esan duelako osoko bilkura batean adostatu zutela beharrezkoa ez zela.

Jesús Maria Fullaondok esan du zenbaitetan beharrezkoa dela eta adostatu zutena izan zen plantillan kazetaria ez izatea.

ANV-EAEkoek esan dute ez deritzotela beharrezkoa, eta Jose Maria Markaidak galdetu dio idazkariari zer egin daitekeen Dekretua atzera botatzeko. Idazkariak esan dio Osoko Bilkuran ezin dela, kontratu txikia denez, Alkateren eskuduntza delako.

Jose Maria markaidak 2007/101 dekretuaz (Itzulpen zerbitzuarena) esan du Udala UEMAn sartuta, zergatik dagoen *itzulpen zerbitzua*. Jesús Maria Fullaondok esan du orain arte egon dela.

3. UEMAko ordezkari berria izendapena.

Idazkariak azaldu du UEMAkoek eskatu dutela beste ordezkari bat eta ordezekoak izendatzeko.

Alde batetik, Jesús Maria Fullaondok proposatu du Maria Jesús Azkue ordezkari eta Leixuri Arrizabalaga eta Pedro Arrizabalaga ordezeko.

Beste aldetik, Jose Maria Markaidak proposatu du Deitze Erkoreka ordezkari eta Maite Elordui eta Jose Maria Markaida bera ordezeko.

Bozkatu da: Jesús Maria Fullaondo, Maria Jesús Azkúe, Pedro Arrizabalaga eta Leixuri Arrizabalaga ados daude alkateak proposatutakoarekin. Jose Maria Markaida, Maite Elordui, Deitze Erkoreka ez daude ados (Jose Maria Markaidaren proposamenarekin bat dato) . Iñaki Aginaga abstenitu da.

Beraz, gehiego osoa beharrezkoa denaz, ez da ordezekoa izendatu.

4. UEMAko estatutuen aldapenaren onarpena.

Aho batez onartu da.

5. Gizarte ekintzaren txostenen onarpena.

Aho batez onartu da.

6. Alkatearen erabateko ardularia eta soldataren onarpena

Bozkatu da: Jesús Maria Fullaondo, Maria Jesús Azkúe, Pedro Arrizabalga Leixuri Arrizabalaga eta Iñaki Aginaga baietz esan dute. Jose Maria Markaida, Maite Elordui eta Deitze Erkoreka abstenitu dira.

Erabakia onartu da.

7. Fiskal-ordenantzen aldaketen onarpena:

Jose Maria Markaidak esan du ez dela ordenantza fiskalak ikusteko denbora egon. Onartu beharra dagoenez, ez ohiko osoko bilkura proposatu da. Guztiak ados egon dira.

8. Osoko bilkuren maiztasunaren aldaketa

Gaiak egon ezean, proposatu da hilero osoko bilkura ez egin.

Jose Maria Markaidak esan du beti egongo direla gaiak.

Bozkatu da: Jesús Maria Fullaondo, Maria Jesús Azkúe, Pedro Arrizabalga Leixuri Arrizabalaga baietz esan dute. Jose Maria Markaida, Maite Elordui, Deitze Erkoreka eta Iñaki Aginaga ezetz esan dute.

Alkatearen kalitatzeko botarekin, proposamena onartu da.

9. Informazio batzordeko ordezkarien izendapena.

Talde politikoek izendatu dute haien informazio batzordeko ordezkariak.

- EAJkoek izendatu dute:

- Hezkuntza, Kultura Eta Turismo, Euskara, Emakumea Eta Gizarte Ekintza arloko Informazio-Batzorderako: Leixuri Arrizabalaga.
- Ingurugiro, Osasun Eta Kontsumo, Toki Agenda 21, Gazteria Eta Kirol Arloko Informazio-Batzorderako: Maria Jesús Azkúe.
- Obra Eta Zerbitzu, Garraio Eta Lanbide Arloko Informazio-Batzorderako: Maria Jesús Azkúe.
- Hirigintza, Ekonomia Osasuna Eta Diruzaintza Arloko Informazio-Batzorderako: Maria Jesús Azkue.
- ANV-EAEkoek izendatu dute:
 - Hezkuntza, Kultura Eta Turismo, Euskara, Emakumea Eta Gizarte Ekintza arloko Informazio-Batzorderako: Jose Maria Markaida.
 - Ingurugiro, Osasun Eta Kontsumo, Toki Agenda 21, Gazteria Eta Kirol Arloko Informazio-Batzorderako: Deitze Erkoreka
 - Obra Eta Zerbitzu, Garraio Eta Lanbide Arloko Informazio-Batzorderako: Jose Maria Markaida.
 - Hirigintza, Ekonomia Osasuna Eta Diruzaintza Arloko Informazio-Batzorderako: Maite Elordui.
- EAKoek izendatu dute:
 - Hezkuntza, Kultura Eta Turismo, Euskara, Emakumea Eta Gizarte Ekintza arloko Informazio-Batzorderako: Iñaki Aginaga.
 - Ingurugiro, Osasun Eta Kontsumo, Toki Agenda 21, Gazteria Eta Kirol Arloko Informazio-Batzorderako: Gotzon Arrieta.
 - Obra Eta Zerbitzu, Garraio Eta Lanbide Arloko Informazio-Batzorderako: Iñaki Aginaga.
 - Hirigintza, Ekonomia Osasuna Eta Diruzaintza Arloko Informazio-Batzorderako: Gotzon Arrieta.

10. ANV-EAEkoek egindako proposamena: Etxebizitzaren beharra ezagutzeko zerrenda egitea.

ANV-EAEkoek proposatu zuten Gatican, etxebizitzaren beharra ezagutzeko, zerrenda bat zabaltzea, herritarren beharizanen arabera eraiki ahal izateko. Jesús Maria Fullaondo esan du horretarako une onena bilatu beharra dagoela. Datorren urtean (*urtarrilean*) egitea erabaki dute.

11. ANV-EAEkoek egindako proposamena: Merkataritza bultzatzeko neurriak artesa.

ANV-EAEkoen esanetan, udaletxeak merkataritza bulzatu behar du, herriak bizi propioa izateko beharrezkoa da komertzioa egotea. Proposatzen dute herriko plazan udaletxeak daukan lokala lehiaketara ateratzea; horretarako parte hartu nahi dutenek proiektu bat aurkeztu beharko dute.

Jesús Maria Fullaondok esan du lokalak zertarako erabili ahal diren ikertu beharra dagoela.

ANV-EAEkoek proposatu dute dagoeneko hastea. EAJkoek proposatu dute alde zuzenetik miaztea.

Bozkatu da: Jose Maria Markaida, Maite Elordui, Deitze Erkoreka eta Iñaki Aginaga dagoeneko hastearekin ados egon dira.

Jesús Maria Fullaondo, Maria Jesús Azkúe, Pedro Arrizabalga Leixuri Arrizabalaga ez dira bat etorri honekin.

Alkatearen kalitatzeko botarekin, proposamena ez da onartu.

12. ANV-EAEkoek egindako proposamena: Lan poltsa irekitzea.

ANV-EAEkoek proposatu dute lan poltsa zabaltzea. Haien ustez, Gatar guztiak informatu behar dira lan poltsa zabaltzerakoan herrian sortu daitezkeen lanak betetzeko aukera izan dezaten.

Jose Maria Markaida esan du ezinbestekoa dela egitea.

Jesús Maria Fullaondok esan du ados dagoela eta egingo dela. Proposatu du sei hilabeterik behin eguneratzea.

Guztiak daude ados.

13. ANV-EAEkoek egindako proposamena: Herriko jaietan berdeguneak erabili ahal izatea.

Jose Maria Markaida azaldu du berdeguneak erabilera publikorako direla.

Jesús Maria Fullaondok esan du ados dagoela, eta azken San Bartolometako jaietan ezin zela zati bat erabiltzea belarra berria zen eta.

Guztiak daude ados erabilera publikoarekin.

14. ANV-EAEkoek egindako proposamena: Instantzia eredu berria jartzea.

Deitze Erkorekak azaldu du euren proposamena:

- Gaurtik aurrera herritarren eta udalaren arteko hartu-emonak modu formalean egin.
- Inprimaki bar osatu.
- EAE-ANVk aurkeztu duen inprimaki eredu onartu.
- Herritarrek inprimakia betezen dutenenan, sarrera-zenbakiaren zigilua jarri eta eskatzaileari horren kopia eman.

- Langileei harremanak idatziz egingo direla eta lan egiteko modu hori aurrerantzean derrigorrezkoa eta ohikoa izando dela jakinaraztea. Hemendik aurrera udalera hurniltzen diren herritarrei inoprimakia betetzeko eskubidea dutela jakinarazi.
- Administrazio arloko konturen bat salbu, inprimaki horiek politikariengana bideratu beharko direla jakinarazi.
- Kultur etxean ere proposamen eta eskariak idatziz jaso, sarrera zigilurik ez dagoen arren.
- Herritarrek aurkeztu ditzaketen paperei ere sarrera zigilua jarri.

Honetaz hitz egin ondoren puntu guztiei buruz bozkatu dute:

- Aho batez onartu dute hartu-emanak idatzita egitea.
- EAJkoak dagoen inprimakiaren alde daude. ANVkoek nahi dute euren inprikakia erabiltzea. EAJkoen botoekin onartu dute eredia manteintzea.
- Eskaerak idatziz egiten direnean, dagoeneko ematen da sarrera-zenbakia, beraz, aho batez onartu dute beti ematea.
- Guztiak egon dira ados inprimakiak eskaintzearekin.

- Jose Maria Markaidak eskatu du kexak egoten direnean, informazio batzordeetara eramateko. Jesús Maria Fullaondok esan du dagoeneko egiten dutela.
- Kultur etxean inprimakiak eraman ahal izateko ikertu beharra dago ea posiblea den ordenagailuan programa jartzea.
- Aho batez onartu dute herritarrek aurkeztu ditzaketen paperei ere sarrera zigilua jartzearekin.

15. Uribe Butroeko estatutuak onartu eta ordezkari bi izendatzeari buruzko premiazko mozioa.

Aho batez onartu dute premia.

Aho batez onartu dituzte estatutuak.

Jesús Maria Fullaondok proposatu ditu ordezkari Jesús Maria Fullaondo eta Leixuri Arrizabalaga, eta ordezko Pedro Arrizabalaga eta Maria Jesús Azkue.

EAJkoen eta Iñaki Aginagaren botoekin proposamena onartu da.

16. Eskabide eta galderak

- Jose Maria Markaida galdetu du zergatik, eskatzen dituztenean, ez diote kopiak hartzen uzten. Jesús Maria Fullaondok esan du publikoak diren dokumentu guztiak emateko alde dagoela. Beraren ustez, batzuetan ikusi baino ezin da egin, batez ere pribatuak direnean.
- Deitze Erkorekak eskabidea irakurri du. Hona hemen esan duena:

“Gatikako udaleko Kultur arlotik antolaru diren ikastaroen inguruan hainbat, irregulartasun aurkitu ditugu EAE-ANVko zinegotziok. Informazio batzordean honei buruzko zalantza eta kezka argitu: ez zizkigutela kontuan hartuta, urriko osoko bilkura honetan, eskabide eta galderen atalean gure ikuspuntua azaldu eta erantzukizunak eskatzeko beharra dagoela uste dugu.

Horretarako gure interbentzioa moztu gabe azalpenak ematen uztea eskatzen diogu alkateari eta idazkariari.

1.- Kultur agendan agertzen ziren ikastaro pare bat elkarte pribatuen esku geratu direla jakin izan dugu. Horien artean, sabel dantza eta euskal dantza ikastaroa. Ez dugu uletzen zergatik instituzio publiko batek, elkarte pribatu baten aldeko propaganda egin behar duen; are gehiago jakinda herrian kultur elkarte ugari dauzkagula eta beste hainbeste ekitaldi antolatzen dituztela uliean zehar. Adibidez, Artaxori moto klub, Guztiontzat hirugarren adinekoen elkarte, Gogoz euskara taldea ...

Kultur zinegotziaren esanetan, kultur elkarte pribatu hauek eurek egin zuten ikastaroa egiteko proposamena. Udalak proposamenak begi onez ikusi eta udal aretoak erabiltzeko aukera eman zien.

Gure iturrien arabera, ordea, ez dago ez udaletxeko sarrera erregistroan ez ta kultur etxean ere proposamen hori jasotzen duen paperik. Beraz, kultur zinegotzi andrea gezurretan aritu zara.

Horrez gain, teoriarik sabel dantza ikastaroa emateko proposamena egin zuen BAKBEK, Butroi elkarte kulturalaren estatutuak eskatu ditugu. Estatutuak publikoak direlako eta herritarren eskura daudelako Eusko Jaurlaritzako elkartearen erroldan. Gure harridurarako kultur elkarte horren lehendakari ordea kultur zinegotzia bera da, Maria Jesus Azkue andrea, horren lehendakari ordea zinegotziaren semea, idazkaria zinegotziaren alaba, Larraitz era diruzaina zinegotziaren senarra.

Baina hori gutxi balitz, ikastaroa ematen duen pertsona elkatearen idazkaria eta zinegotziaren alaba, bera da: Larraitz. Gainera, ikastaroak emateagatik dirua eskura jasotzen du; ahu da, diru beltza, inon erregistraturik geratzen ez den diru beltza. Larraitz Loiarte Azkuek 16 ikasle omen dauzka, 8 gatarik eta 8 kanpoko, Maria Jesusek informazio batzordean emandako datuen arabera (ez dakigu egia edo gezurra den), Eman dizkigun datuak benetazkoak badira irakasle horrek 520€ko soldata ateratzen asteen egun batez astearte arratsaldeetan lau orduz ikastaroa ernateagatik. Ederra soldata!

Gainera, gogoratu nahi dizuegu egungo kultur agendan aerobik, gimnasia eta taichi ikastaroei ordu bat kendu dietela, eta kasualitatez astearte arratsaldea libre geratzen dela zinegotziaren alabak sabel dantza ikastaroak eman ditzan. Maria Jesusen hitzetan ikastaroak hiru ordura murriztu dira jendeak horrela eskatu zuelako inkestetan; baina guk irakurri ditugun inkestetan, ez dakit berdinak begiratu ditugun eta ziur egon guk banan banan aztertu ditugula, jendeak espreski eskatu zuela lau orduko ikastaroak.

Hauek guztiak entzunda, jakín gura genuke ze ezberdintasun dagoen negozio eta printzipioz irabazteko asmorik ez , daukan kultur elkarte baten artean. „Ah bai! Badago aldea, negozio bat jarri duen pertsona batek lokal bat alokatu edo erosi behar izaten du,

Aldiz, Gatican, zinegotziaren alaba izanez gero eta lokala herriak jartzen dio bere poltsikoan bete ditzan!

Beraz, zure alabaren negozioak aurrera irten zezan beste ikastaro guztiak zure nahierara antolatu dituzula salatzen dugu. Zure karguaz aprobetxatu zarela zure familiaren etekinerako eta jakin ezazu bide legealetik jo badaiteke bidean aurkituko gaituzula.

Zelan izan daiteke posible Gaticako udalak eta bere ordezkari gorenaren alkateak, negozio hauek egiten uztea? Akaso bihar edozein herritar etorrita utziko al lioke udal gela bat ikastaroak emateko ezere truke?

Non dago negozio eta herritarrentzako interesgarria izan daitekeen kultur edo kirol arloko ekintza baten arteko muga?!

Nola froga dezake kultur zinegotziak kultur elkarte hauek proposamen bat egin duela? Non daga idatzita? Zein konpromiso sinatu ditu udalak elkarte horrekin, elkartaren baten ernaten baldin badu ikastaroa? Zergatik horrekin bai eta zergatik ez beste batzuei galdetu?

2.- Zoritzarrez, Maria Jesus Azkue kultur zinegotziaren negozioak ez dira hemen bukatzen ez. Butroi elkarte kulturalaren estatutuak eskatu genituenean, bere etxean beste kultur elkarte bat ere izena emanda zuela jakin izan genuen. Estatutuak eskuratzerakoan jakin genuen LIUKU elkartearen lehendakaria bere alaba eta sabel dantzako irakaslea zela: Larraitz Loiarte. Elkartearen lehendakari ordea, berriz ere, bere semea, oraingoan idazkari lana hartu zuela gure zinegotzi Maria Jesus Azkuek. Diruzain lanetan, berriz, Maria del Carmen Requejo Garcia sestaotarra dagoela, bokal lanetan zinegotziaren loba, getxoko andra bat eta Sevillako beste bat.

Hasiera batean, gure susmoak piztu ez bazituen ere, udaletxean hainbat aldiz eskatu ondoren ikastaro guztien informazioa: inkesten emaitzak, aurrekontuak, kontratuak, seguruak, ... ikustea Portu geunenean aurkitu genuen lotura.

Hain zuzen ere, pintura ikastaroa eskaintzen du Gaticako udalak asteazkenetan umeentzat eta hala eskatu zuten heldu gutxi batzuentzat. Kasualitatez, ikastaro hau ere kultur elkarte baten bitartez kudeatu zen da eta kasualitatez, Sestaokoa da. Eta azken kasualitatea CEZAY imaginación y creatividad kultur elkartearen lehendakaria Maria Carmen Requejo dugu. Bai, Maria Jesusek etxean izena emanda duen LIUKU kultur elkartearen diruzaina bera.

Normala denez, Maria Jesusek ez zuen eskatu bestelako aurrekonturik ikastaro honetan bai, ordea, interesetzan ez zitzaizkion beste batzuetan (eskulanak esaterako).

Baina hori ez da dena, Maria Jesusek CEZAY elkartearentzat aseguru ere eskatu zuen; oraingoan ere beste kultur elkarte baten izenean. Herrian erro sakonak dituen Intxurtxu dantza taldearen izenean hain zuzen ere. Zergatik erabili behar du herriaren aurrean errespetua irabazita daukan dantza talde baten izena, udaleko lana egiteko eta bere ustez gainera ondo egina dagoen lana burutzeko?

Zelan azaldu dezake kultur zinegotziak kointzidentzia mordo hau? Froga ahal dezake Maria Jesus Azkue zinegotziak ez dela bere karguaz baliatu bere famaliako eta lagun edo negoziokideei lana eskuratzeko?

3,- Aurreko guztiak Maria Jesusen negozioen berri eman badigu ere badira beste kontu pare bat harritu gaituztenak, Batetik Trapu Zarrak enpresa hartu du udalak joskera ikastaroak emateko, baina udalak kontratua sinatu beharrean dekretu bidez egín du tramite hau. Gure ustez, kontratu guztiak berdin egin beharko ziren, ezberdintasunik gabe, kontratu txikia bada ere,

4.- Bestetik, udal gelen banaketa desegokia ere salatu nahi dugu. Gure ustez, egun yoga ematen den udal gela ez da batere aproposa horretarako; toki horretan eskulanak egiten aritzen baitira apur bat lehenago. Guztiok dakigu eskulanetan erabiltzen diren materialak nahiko toxikoak direla. Beraz, toxikoen gaia kontuan hartuta eta jakinda tenperatura arazoak dituztela; udalari eskatzen diogu irtenbide bat eman diezaiela. Horretarako, eurekaz elkartu eta guztion artean erabakiz.

5,- Bukatzeko kultur zinegotziaren dimisioa eskatzen dugu. Bai bere dimisioa, gobernu hau udalean dagoenetik lau hilabete igaro ez duenean, bere zinegotzi arduraz baliatu delako interes pertsonaletarako.

Era berean, premiazko batzarra eskatzen diogu alkateari kontu honen gaineko azalpenak eman ditzan.”

Maria Jesús Azkuek azaldu du Joskera ikastaroa emateko ez dela beharrezkoa kontratua egitea. Esan du beste gauza guztiak azaltzeko, nahiago duela beste momento batean azaldu.

Deitze Erkorekak esan du hobe dela jendeaurrean azaltzea.

Sabel dantzari dagokionez, Maria Jesús Azkuek esan du ahoz eskatu zutela, lehen ohi zen legez. Galdetu dio Iñaki Aginagari eman zion idatzia bete barik. Iñaki Aginagak esan du baimenak eman direla ahoz.

Leixuri Arrizabalagak esan du Intxurtxu kultur elkarte independentea dela eta ez duela zerikusirik BAKBEKen lanekin, Butroiko azokan izan ezik. Leixuri Arrizabalagak azaldu du udalari dirulaguntza eskatzen diola azoka prestatzeko, Intxurtxu baita azoka ordaintzen duena. *EAE-ANVkoek ez dute ezer Intxurtxuren contra.*

Guztiek onartu dute honetaz hitz egitea 31ko ez ohiko osoko bilkuran.

- Jose Maria Markaidak esan du udaletxean dauden karteak ez diotela inori kalte egiten, eta beste kartelarekin gertatzen den bezala eskatu du guztiak manteintzeko.

Jesús Maria Fullaondok esan du udaletxera karta batzuk heldu direla Espainako bandera jartzeko eskaten dituztenak, eta horregatik ez duela inolako ikurra izan nahi.

- Jose Maria Markaidak esan du Irailaren 27an Ertzaina etorri zela Gatikara, grabatzeko eta argazkiak ateratzeko, arazoak ez egon arren.

Arestian esanda dagoen moduan, 21.30etan batzordea amaitu da.

Jesús M. Fullaondo Gatikako Alkatea	Chiara Camarón Gatikako behin-behineko idazkari- kontuhartzailea
--	--